

JARDUERA PROGRAMA 2021-2022 IKASTURTEA ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA



Aurkibidea

1. Azpiegiturak eta baliabideak	3
2. Garapen akademikoa eta ikerketaren garapena.....	3
3. Esperientzia Gelak.....	4
4. Hizkuntza garapena	4
5. Ekintzailletza eta laneratzea	5
6. Kalitate, prebentzio eta ingurumen programak.....	6
7. Unibertsitate hedakuntza	6

1. Azpiegiturak eta baliabideak

- 1.1 Plangintza eta Azpiegituren Gerenteordetzarekin lankidetzan, UPV/EHUko Eraikinetako Azpiegituren Plana ezartzea. Plan horretan jasoko dira eraikin bakoitzak bere jarduerak garatzeko behar dituen berrikuntzak, erabiltzaileen instalazioetako segurtasunera bideratutako neurriak eta mugikortasuna hobetzera bideratutako neurriak. Lehenetsuna emango zaio eraikinen prebentziozko mantentzeari.
- 1.2 Gauzatzea erreforma, hobetze eta egokitzeko esku hartzeen plana hainbat ikastegitan.

2. Garapen akademikoa eta ikerketaren garapena

- 2.1. Garatzea bisita eta bilera programa bat ikastegiekin, zuzendaritza taldeei laguntzeko beren kudeaketa lanetan.
- 2.2. Bultzatzea eta babestea ikastegien ekimenak campusaren eskaintza akademikoa zabaltzeko.
- 2.3. Laguntza ematea ikastegiei unibertsitate-enpresa ikasgelak sortzeko, bai ikastegietakoak, bai campusekoak.
- 2.4. Ikusaraztea GJHen inguruan garatzen den ikerketa eta prestakuntza.
- 2.5. Sustatzea komunikazio zientifikoko programa, hainbat egitura eta ekitaldiren bidez.
 - 2.5.1. Antolatzea 2021eko Zientzia Astea, Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan.
- 2.6. Egitea irakasle eta ikertzaileen gaitasunak eta prestakuntza hobetzera bideratutako jarduerak, Ikerketaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan.
- 2.7. Erraztea prestakuntza eskaintzaren, programa osagarrien eta bestelako jardueren komunikazioa.
- 2.8. Antolatzea unibertsitate aurreko ikasleei zuzendutako jarduerak, gaitasun zientifiko-teknikoak gara ditzaten.
- 2.9. Koordinatzea UPV/EHUko Uda Ikastaroen Fundazioarekin Arabako Lurralde Historikoan egiten diren ikastaroen antolamendua.

- 2.10. Harremanak estutzea eta lankidetzan aritzea lurralde historikoko eta EAEko erakunde publikoekin, eragile sozioekonomikoekin eta erreferentziazko kanpo erakundeekin, lankidetzan hitzarmenak formalizatzeko, praktikak, GRALak, MALak, doktorego-tesiak eta abar egiteko, bai eta zerbitzuak kontratatzeke ere.

3. Esperientzia Gelak

- 3.1. Antolatzea Giza Zientzietako titulazioaren irakaskuntza.
- 3.2. Planifikatzea eta garatzea Adinekoentzako Unibertsitate Ikastaroak (AUI) eta Ikastaro Osagarriak.
- 3.3. Antolatzea Esperientzia Geletako ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen arlo akademikoaz kanpoko jarduerak.
- 3.4. Laguntzea Esperientzia Geletako ikasleen eta ikasle ohien kultur elkarteari (ACAEXA-AEIKE) jarduerak antolatzen.
- 3.5. Lankidetzan jardutea Helduentzako Unibertsitate Programen Espainiako Elkartearekin (AEPUM).
- 3.6. Prestatzea eta zabaltzea ikasleek egindako "La voz de la experiencia/Esperientziaren Ahotza" seihilabetekaria.
- 3.7. Lankidetzan aritzea UPV/EHUko sail eta ikastegiekin, eta beste erakunde eta elkarte batzuekin, unibertsitateko gainerako ikasleek eta/edo hiritarrek parte hartzeko moduko jarduerak antolatzeko eta eskaintzeko.
- 3.8. Elkarrekiko informazio harremanak sortzea Arabako Foru Aldundiaren +55 ikasgeletako, Vital Fundazioko (+55 jarduerak) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren BIZAN sareko (Adinakoentzako Zentro Soziokulturalak) jarduera eskaintzaren inguruan.
- 3.9. Hausnartzea hiru campusetako Esperientzia Geletako proiektuaren orainari eta etorkizunari buruz, modu koordinatuan.

4. Hizkuntza garapena

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzarekin batera:

- 4.1. Garatzen jarraitzea Euskararen III. Plan Gidaria (2018-2022) Arabako Campusean.
- 4.2. Sustatzea unibertsitateko bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko jarduerak.

- 4.2.1. Antolatzea Euskararen Astea.
- 4.2.2. Osatzea euskararen erabileraren diagnostikoa Soziolinguistikako Klusterraren laguntzaz.
- 4.3. Bultzatzea eztabaida eta zabalkunderako foroak, bai eta euskara tekniko-zientifikoa sustatzeko jarduerak ere.
- 4.4. Laguntza ematea euskarazko irakaskuntzarako materiala prestatu, egokitu eta zabaltzeko.
- 4.5. Sustatzea euskararen erabilera unibertsitateko kide bakarreko organoen zein kide anitzeko organoen bileretan.
- 4.6. Laguntza ematea campuseko unibertsitateko kideei atzerriko hizkuntzak ikasteko, baita testuen ekoizpen zuzenak egiteko gaitasunak garatzeko ere.
- 4.7. Eskatzea BIKAIN ziurtagiria, Arabako Campuseko Errektoreordetzako euskararen presentzia, erabilera eta hizkuntza kudeaketa ebaluatzeko.

5. Ekintzailtza eta laneratzea

Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan:

- 5.1. Garatzea INIZIA ArabaCampus programa Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin (BIC Araba) lankidetzan, Arabako Campusean ekintzailtza eta oinarri teknologikoko INIZIA enpresa haztegia bultzatzeko, ekintza hauen bidez:
 - 5.1.1. Sustatzea kultura ekintzailea eta zabaltzea ekintzailtzaren eta enpresak sortzearen arloan eskaintzen diren zerbitzuak ikasleen eta irakasle-ikertzaileen artean.
 - 5.1.2. Indartzea ekintzailtzako prestakuntza jardueren eta unibertsitate komunitatetik sortzen diren ideia berritzaileei zerbitzu eta laguntza emateko jardueren eskaintza.
 - 5.1.3. Bultzatzea enpresa ekimeneen garapena, sariak emanez eta finantzaketa bilatzen lagunduz.
 - 5.1.4. Lankidetzan aritzea Araban (Álava Emprende) ekintzailtza sustatzen duten erakunde eta instituzioekin, eta eskaintzen dituzten zerbitzuak zabaltzea ikasleen eta irakasle-ikertzaileen artean.
 - 5.1.5. Antolatzea "Design the Future" izeneko CERN IdeaSquare Workshop-a BIC Arabarekin eta Ikerketa Nuklearrerako Europako Zentroarekin (CERN) lankidetzan.

- 5.2. Enplegarritasunaren I. Plana garatzea honako ekintza hauen bidez:
 - 5.2.1. Laguntza ematea campusetako enplegu zentroi bertan programatzen diren prestakuntza, orientazio eta bitartekaritza ekintzak zabaltzeko, antolatu eta garatzeko, enplegarritasuna errazteko eta laneratzea sustatzeko.
 - 5.2.2. Bultzatzea ikasle graduatuen eta enpresen arteko lan bitartekaritza, campuseko ikastegiekin lankidetzan.
 - 5.2.3. Antolatzea Enplegu Gune 2022 (Vitoria-Gasteizko Enplegu Foroa), Gasteizko Udalaren Enplegu eta Garapen Ekonomiko Jasangarriko Sailarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan.

6. Kalitate, prebentzio eta ingurumen programak

- 6.1. Hobetzea suteak hautemateko sistemak eta alarmak.
- 6.2. Eguneratzea larrialdietako planak eta simulakroak antolatzea, zehaztutako egutegiari jarraituz.
- 6.3. Egitea arauzko eta maiztasun jakin bateko ikuskatzeak, eta ezartzea neurri zuzentzaileak, hala badagokio.
- 6.4. Sustatzea dokumentazio digitalaren erabilera, inprimatutako dokumentazioaren ordez, bai eta garraio publiko eta garraio osasungarriaren erabilera ere, CO₂ emisio tasa txikiagoekin.
- 6.5. Unibertsitateko kideak sentsibilizatzea campusera eta ikastegietara motor gabeko garraiobideetan edota garraiobide publikoan iristeko.
 - 6.5.1. Parte hartzea Europako Mugikortasunaren Astean, campusean ekimenak antolatuz.

7. Unibertsitate hedakuntza

7.1. EHUKULTURA****

- 7.1.1. Zehaztea eta garatzea EHUkultura Araba programa, kultura diziplina ezberdinak aintzat hartuz: literatura lehiaketak, zinematografikoak eta musikalak, kultura ikastaroak, liburu aurkezpenak, erakusketak, antzerkia eta musika kontzertuak.
- 7.1.2. Sustatzea hiriko eta lurraldeko kultur eragileekin lankidetzan eta horrela badagokio hitzarmenak sinatzea.

- 7.1.3. Sustatzea UPV/EHUko elkarten jarduerak eta elkarte berrien eraketa, EHUkulturaren organigramari atxiki dakizkion.
- 7.1.4. Bultzatzea campusean unibertsitate hedakuntzako jarduerak (kongresuak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak), laguntzak emateko deialdiaren bidez.
- 7.2. Unibertsitatearen irudia zabaltzeko jarduerak.
- 7.2.1. Egitea iritzi artikuluen lehiaketarako deialdia.
- 7.2.2. Egitea ipuin laburren lehiaketaren deialdia (gaztelaniaz eta euskaraz).
- 7.2.3. Antolatzea CORTADA, Gasteizko XXV. Film Laburren Jaialdia (EHUSKARABANDA bideo-maratoiaren deialdia barne).
- 7.2.4. Antolatzea MUSIVERSIKA, campusen arteko IV. unibertsitate musika jaialdiaren deialdia.
- 7.3. **EHUKIROLA**
- 7.3.1. Sustatzea hiriko eta lurraldeko kirol entitate eta instituzioekin lankidetzeta eta horrela badagokio hitzarmenak sinatzea.
- 7.3.2. Unibertsitateko kirol txapelketak: antolatzea Arabako Campusean bakarkako zein taldeko kirolen lehiaketak, eta parte hartzea campus artekoetan eta Euskadi eta Estatu mailakoetan.
- 7.3.3. Garatzea kirol prestakuntza eta formazioaren inguruko jarduerak: kirol eskolak (errugbia, pilota, boleibola, tenisa...), hitzaldiak eta zinema emanaldiak, errendimendu handiko kirolarien tutorizazioa, Joko Garbia ekimena, eta Emakumea eta Kirola arloko jarduerak besteak beste.
- 7.3.4. Garatzea EHUosasungarri programa:
- Antolatzea Europako Kirolaren Astea: kirol eguna, hitzaldiak, eta abar.
 - Antolatzea mintegiak, jardunaldiak, hitzaldiak, jarduera fisikoak eta kirol jarduerak.